

Emakumezkoena probatu

Ikusi duzunean harritu bazara,
are gehiago harrituko zara
erabiltzen duzunean

**EMAKUMEZKOEN PRESERBATIBOAREN
erabilera sustatzeko kanpaina**

Aholkua eskatu zure farmazeutikoari

ZER DA EMAKUMEZKOEN PRESERBATIBOA?

Gizonezkoen preserbatiboen ordezeko metodoa da, nahigabeko haurdunaldien, GIB infekzioen eta Sexu bidez transmititzen diren beste hainbat Infekzioen aurka babesten du.

Nitrilozko zorro garden bat da, mutur bakoitzean uztaï malgu bana duena: bata, barruan, baginaren barruan jartzeko eta, bestea, diametro handiagoa duena, baginaren kanpoaldean uzten dena eta emakumezkoaren kanpo-genitalak estaltzen dituena.

ZERGATIK EMAKUMEZKOEN PRESERBATIBOA?

Gizonezkoen preserbatiboak baino autonomia gehiago ematen dielako emakumei eta, ondorioz, haien ugalkortasunaren zein sexualitatearen kontrol hobea ematen dielako.


ZERGATIK GOMENDATU FARMAZIETATIK HAUXE ERABILTzea?

Farmaziak eskura eta leku guztietan daudenez, eta osasun-profesionalek zuzentzen dituztenez, osasun establezimendu estrategikoak dira osasun arreta prebentiboko ekintzak burutzeko.

AURKEZTEKO UNEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ARLOAK

Hasieran, baliteke emakumezkoen preserbatiboaren itxura atsegina ez izatea eta hura probatzeko gogoia kentzea. Gainera, barruan jarri behar izatea zaila irudituta daiteke eta horrek erabiltzeko gogoia ken dezake. Baina metodo hau erabiltzen ohitu ahala, kexa gehienak desagertu egiten dira. Horregatik, ezinbestekoa da behar bezala aurkeztea eta haren erabileraren **alderdi onak nabarmentzea**.


NOLA ERABILTZEN DA EMAKUMEZKOEN PRESERBATIBOA?




- Kanpoko uztaia beherantz zintzilik dagoela hartu eskuan. Preserbatiboaren alde itxiko uztaia hartu (barrukoa) eta hatz potoloarekin eta erakuslearekin edo hatz luzearekin eutsi, luze eta estu geldi dadin.



- Preserbatiboa jartzeko posizio erosoak aukeratu. Esaterako, zutik, oin bat aulki baten gainean duzula, eserita belauak bananduta dituzula, makurtuta edo etzanda.
- Barne-uztaia baginan sartu.



- Barruko uztaia ahal duzun guztia sartzeko bultzatu (hatz erakuslea preserbatiboan sartuz), barru-barruan gelditu dadin.



- Kanpoko uztaiak emakumezkoaren kanpo-genitalak estaliko ditu.



- Zakila eskuarekin zuzendu emakumezkoen preserbatiboaren erdialdera baginaren hormaren eta preserbatiboaren kanpoaldearen artean sar ez dadin.



- Harremena bukatu eta zakila atera ondoren, kanpoko uztaia estutu eta preserbatiboa bihurrituz atera, semena preserbatiboaren barruan gera dadin. Poliki atera.



- Erabili ondoren, ez ezazu komunera bota, zakarrontzira baizik.
- Berria erabili behar da sexu-harreman bakoitzean.
- Ezin da gizonezkoen preserbatiboarekin batera erabili.

ZER DA EMAKUMEZKOEN PRESERBATIBOA?

Gizonezkoen preserbatiboan ordezko metodoa da, nahigabeko haurdunaldien, GIB infekzioen eta Sexu bidez transmititzen diren beste hainbat Infekzioen aurka babesten du.

Nitrilozko zorro garden bat da, mutur bakoitzean uztai malgu bana duena: bata, barruan, baginaren barruan jartzeko eta, bestea, diametro handiagoa duena, baginaren kanpoaldean uzten dena eta emakumezkoaren kanpo-genitalak estaltzen dituena.

ZERGATIK EMAKUMEZKOEN PRESERBATIBOA?

Gizonezkoen preserbatiboak baino autonomia gehiago ematen dielako emakumei eta, ondorioz, haien ugalkortasunaren zein sexualitatearen kontrol hobea ematen dielako.

ZERGATIK GOMENDATU FARMAZIETATIK HAUXE ERABILTzea?

Farmaziak eskura eta leku guztietan daudenez, eta osasun-profesionalek zuzentzen dituztenez, osasun establezimendu estrategikoak dira osasun arreta prebentiboko ekintzak burutzeko.

AURKEZTEKO UNEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ARLOAK

Hasieran, baliteke emakumezkoen preserbatiboaren itxura atsegina ez izatea eta hura probatzeko gogoa kentzea. Gainera, barruan jarri behar izatea zaila iruditu daiteke eta horrek erabiltzeko gogoa ken dezake. Baina metodo hau erabiltzen ohitu ahala, kexa gehienak desagertu egiten dira. Horregatik, ezinbestekoa da behar bezala aurkeztea eta haren erabileraren **alderdi onak nabarmentzea**.

HAREN ERABILERAREN GAINETIK EGONEZINAK

Eraginkorra al da...?

ABANTAILAK

- Nahi gabeko haurdunaldien, GIB infekzioaren eta Sexu Transmisioko beste Infekzioen aurka babesten zaitu.
- Bere eraginkortasuna sexu-harreman guztietan ongi erabiltzearen araberakoa izango da. Gainera, oso hauskaitza da, beraz, zaila da koitoan haustea.

Zaila dirudi erabiltzeak...

- Ez da zaila, baina praktikatu beharra dago. Hasierako zailtasunak ez lukete oztopo izan behar. Hainbat aldiz probatu behar da hartara ohitzeko.

Sexu-harremanetan zarata ateratzen du...

- Antzinako emakumezkoen preserbatiboan materialak eragiten zuen zarata. Oraingoak ez du horrenbeste zarata egiten erabiltzean. Gainera, zarata kentzeko, lubrifikatzaile gehiago bota daiteke.

Berezkotasunarekin bukatuko du...

- Aurretik jolas erotikok eta koitoaren ondorengoak ahalbidetzen ditu sexu-harremana eten gabe, harremanaren hasieratik jar daitekeelako, baina 8 ordu lehenago ere, jartzeko zakila zutik egon beharrik ez duelako.
- Sexu-harremanak edozein posiziotan edukitzea ahalbidetzen du, hautsi edo irristatu gabe.
- Sexu-harremana bukatutakoan dagoen intimitatea eta konplizitatea ez du hausten, eiakulatu eta berehala kendu beharrik ez dagoelako.

Ez da berdintzat sentituko...

- Emakumearen gorputzari egokitzen zaio eta sexu-harremanean berotzen doa. Ondorioz, naturalago sentitzen da.
- Ez du zakila estutzen.

Harremana ez da hain atsegingarria izango...

- Kanpo uztaiak klitoria igurzten du eta emakume askoren kasuan plazerra ere areagotzen du.
- Barne-uztaiak gozamina areago dezake bai emakumean bai gizonezkoan.

- **Gizonezkoen preserbatiboaren ordezkoa.**
 - **Nahi gabeko haurdunaldien, GIB infekzioaren eta Sexu-transmisiozko beste hainbat gaixotasunen aurka babestuko zaitu.**
- **Sexu-harremana eten beharrik gabe, jolas erotikoetara jolastea ahalbidetzen du.**
 - **Latexari alergia diotenek ere erabil dezakete.**
 - **Hobeto lubrifikatzen du.**



CONSEJO GENERAL
DE COLEGIOS OFICIALES
DE FARMACÉUTICOS



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE SANIDAD POLÍTICA SOCIAL
Y IGUALDAD

www.mspsi.es